



Euskara ukatzen didazunean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen didazu, nahi gabe izan arren.

Euskaraz hitz egiten didazunean, herrien eta kulturen arteko zubia sendotzen ari zara, euskaratik.

Nire azalaren kolorea azalekoa besterik ez da. Euskarari esker, zu bezain euskalduna naiz. Beraz, egin nirekin ere euskaraz!



Kanpainaren informazioa  
[labur.eus/nirekinERE26](http://labur.eus/nirekinERE26)



Kanpainaren kartela  
[labur.eus/kartelaERE26](http://labur.eus/kartelaERE26)




Kanpainaren bideoa  
[labur.eus/bideoaERE26](http://labur.eus/bideoaERE26)



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

Eduki hau beste hizkuntza batzuetan.  
Gaztelera, arabieraz eta urduz:



CASTELLANO

عرب

اردو

Egin  
nirekin ere  
euskaraz!



**Karellys Borges.** Habana, Kuba.  
Lekunberrin bizi da. Euskalduna.

Sustraiak  
**Kuban**  
dituen  
eta lehen  
hizkuntza  
**gaztelera**  
duen  
**euskalduna**  
da **Karellys.**



Sustraiak  
**Hego Korean**  
dituen  
eta lehen  
hizkuntza  
**koreera**  
duen  
**euskalduna**  
da **Dahye.**

**Dahye Kim.** Hego Koreanarra.  
Lezon bizi da.  
Euskalduna.



Euskaldunak gara Karelys, Dahye, Cauria, Aurora, Marta, Hamida, Bonavie, John Bryan, Marianela, Paula, Alejandra eta Loli.

Kuban, Hego Korean, Saharan, Nikaraguan, Etioipian, Aljerian, Filipinetan, Kolonbian, Ekuadorren, Portugalen, Argentinan edota Hondurasen jaiotako gara, besteak beste. Bizi, berriz, Lekunberri, Lezo, Igorre, Leitza, Hondarribia, Zumaia, Ikaztegieta, Segura, Arantza, Ondarroa, Basaburua eta Gatican bizi gara, baina gainerako udalerritako euskaldunetan ere hamaika Karelys, Dahye edo Bonavie ditugu gure artean, zorionez.

Gaztelera, hasseniera, arabiera, koreera, portugesa edo amharera jaso dugu etxean, besteak beste. Euskara, beraz, ez da gure lehen hizkuntza, baina euskara ikasi dugu eta ikasten ari gara, eta euskaraz aritzen gara herritarrekin.



Askotan, ordea, azalaren koloreagatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik erdaraz hitz egiten digute gainerako herritarrek.

Baina gu ahalegin handia egiten ari gara euskara ikasteko, eta euskaraz hitz egin nahi dugu. Badakigulako euskara dela zubirik ederrena, eta euskara ukatzen diguten bakoitzean zubia ere ukatzen zaigulako.

Gu euskaldunak gara. Beraz, egin gurekin ere euskaraz! **Egin nirekin ere euskaraz!**